



Mota guztietako sagarkiak saldu zituzten azokan.



Tolaretik ateratako muztioarekin topa egin zuten.



Jendetza elkartu zen frontoian goiz guztian zehar.

Ibarbi sagarra nagusi Errezilen

ERREZIL

Eguraldia lagun
zutela ospatu zuten
herriarrek Ibarbi
sagarraren festa

NUÑEZ

ERREZIL. Ibarbi sagarrak herrian duen garrantzia garbi geratu zen atzoko Sagar Azokan. Herriko produktu ezagunena izan zen protagonista aste guztian zehar antolatutako hitzaldi eta tailerretan eta ez zuen hutsik egin urteroko azokan. Atzo herriko Ibarbi sagar ekoizleei zuzenean erosteko aukera izan zuten udal pilotalekura gerturatu ziren bisitariak. Sagarrez gain, bera-ekin egindako mota guztietako produktuak ere izan ziren azokan: tartak, marmeladak, likoreak, sagar-dultzeak, konpotak, eta abar.

Ohitura den bezala, sagar-dultze eta gazta lehiaketa eta dastaketa ere antolatu zen. Hamaika herriarrek aurkeztu zituzten sagar-dultzeak eta bertaratuek guztiak dastatzeko eta baloratzeko aukera izan zuten.

Bozka eman ondoren, Aitzarteko ardi-gazta izan zen irabazlea aurkeztutako hiruen artean. Sagar-dultze lehiaketa Basabe baserriko familiak irabazi zuen.

Sagarrarekin muztioa nola egiten zen ere erakutsi zuten goiz guztian herriarrek frontoiaren goiko aldean. Kixkiarekin sagarrak nola biltzen diren ikasi zuten haurrek, baita sagarrak nola zanpatzen diren gero tolaean muztioa ateratzeko. Lortutako edaria bertaratuen artean dastatzera eman zuten. Gaztaina erreka dastatzeko aukera ere izan zen. Gainera, herriko baserrietako produktuak eta artisauen lanak ere izan ziren. Garaiko barazkiak eta fruituak erosteko aukera izan zen, baita Chernobilen lagunak elkarteen jostailu eta poltsak, Urraki esnekiak edo Lourdes Urrestarazuren lore lehorrak, besteak beste.

Eguraldi epelak bisitari ugari erakarri zituen Errezilgo frontoira eta salmenta ugari izan ziren postuetan. Hala ere, nahi izan zutenek Errezil-Ibarbi Sagarraren ibilbidea osatu ahal izan zuten, herriko txokoetatik bisita gidatua eginez.



Ibarbi sagarra izan zen protagonista eta bisitariak erosteko aukera izan zuten. :: ARGAZKIAK: NUÑEZ

LA ASOCIACIÓN DECEBAL FESTEJÓ SU DÍA DE RUMANÍA

LASARTE-ORIA

La asociación de rumanos en Euskadi, Decebal, celebró ayer en el restaurante Gizarte-etxea de Lasarte-Oria (sede oficial presidida por Nicu Denisov) su fiesta del Día de Rumanía. A la cita asistieron más de un centenar de rumanos, la mayoría residentes en Gipuzkoa, que disfrutaron de una amena comida, con regalos de Navidad para los niños y un animado baile.



TXEMA VALLES